



IV CONCURSO ADONA DE MICRORRELATOS

"Con una vez no basta"*

ADONAREN IV. MIKROKONTAKIZUN LEHIAKETA

"BEHIN EZ DA NAHIKOA"*

*La constancia es la clave para que la donación de sangre sea efectiva

*Odola erregulartasunez ematea funtsezkoa da laguntza eraginkorra izan dadin

MICRORRELATO FINALISTA MODALIDAD CASTAELLANO

Título: EFECTO MARIPOSA

Autor: David SAN JUAN CONDE

Por un clavo se perdió una herradura, Por una herradura, se perdió un caballo, Por un caballo, se perdió una batalla, Por una batalla, se perdió el Reino. Y todo por un clavo de una herradura.

Millones de personas han sobrevivido gracias a la cura contra el cáncer que se inventó hace tres años. Bueno, no se llegó a inventar, no en realidad. Y tampoco se salvaron millones de personas.

Ella era brillante, una de esas raras y prodigiosas mentes que nacen cada muchas generaciones, y sin ninguna duda habría descubierto la cura si hubiese podido continuar con sus investigaciones, pero claro...no puedes investigar si estás muerta.

Porque por supuesto, si vas a un pequeño pueblo a terminar tus investigaciones, con su pequeño centro de salud, y con su pequeño grupo de donantes, te arriesgas a sufrir un accidente y que no se te pueda ayudar. Especialmente si tienes un grupo sanguíneo poco común.

Para cuando la llevaron al centro de salud del pueblo (la ambulancia tardaría mucho en llegar a un lugar tan alejado) su estado era crítico.

Los médicos aventuraban que se podría haber salvado si hubiesen tenido su tipo de sangre en el almacén. Sólo uno de los donantes coincidía con su grupo sanguíneo. Pero tras donar la primera vez se mareó y se negó a volver a donar. Las agujas le daban miedo.

No se pudo hacer nada, y ella murió. También millones de personas.

Verdaderamente, un reino por un clavo.



IV CONCURSO ADONA DE MICRORRELATOS

“Con una vez no basta”*

ADONAREN IV. MIKROKONTAKIZUN LEHIAKETA

“BEHIN EZ DA NAHIKOA”*

*La constancia es la clave para que la donación de sangre sea efectiva

*Odola erregulartasunez ematea funtsezkoa da laguntza eraginkorra izan dadin

EUSKARAZ MODALITATEA KONTAKISUN FINALISTA

Izenburu: BEHIN EZ DA ASKI

Autore: Fernando REY ESCALERA

Ama-alabak ospitaleko gelan daude. Alaba ohaturik. Ama, oheburu ondoko aulki batean, normaltasun itxura eman nahian.

Mieloma anizkoitza diagnostikatu zioten alabari, eta, harrezkeroztik, nerabeari sufrikario bihurtu zaio hamaika azterketa, analisi eta kontsulta egin beharra. Ama alabaren ondoan da, medikuaren deiaren esperoan, amaren odola baita hoberena alabaren muina erabat erre ondoren transfusioa egiteko. Eta, prozesu luzean lehenbiziko aldiz, bere sufrimenduari begiratu beharrean, amarentzat zer izaten ari den ibili du gogoan alabak. Eta galdera buruan pizturik, alde egin dio ahotik. oharkabean kasik:

- Ama, zenbat aldiz kendu beharko dizute odola niri emateko?
- Ez dakit.
- Askotan?
- Ez dakit.
- Zuretzat ere... Behin ez da aski?

Ama isilik gelditu da,

Alabak mieloma zuela jakin zuenez geroztik, amak bere sentimenduak ez azaleratzeko eginahalak egin ditu, eta bere buruari sinetsarazi “alabak ama indartsua behar du; ez dit negar-malkorik ikusiko”.

Baina, une hartara ailegatuta, batek daki zergatik, barrena hustu behar duela sentitu du, eta, bat-batean jabetu, gainera, alabari on egingen diola bere amaren barne-biziaren berri izateak.

- Zenbat aldiz? Begira, Irene, sortu aurretik mila aldiz amestu zintudan. Eta orain, odolik gabe gelditu beharko banu ere, mila aldiz emanen nizuke. Baita bizia ere.